



2000KO MARTXOAREN 29KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bateko martxoaren hogeita bederatzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar eta Urko Irastortza Aldanondo.

Julio Ibañez Urteaga, Jon Agirre Garmendia eta José Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel eta Jose Antonio Dopazo Martin zinegotziak bertaratzen direneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2001eko otsailaren 22an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen da.

III.- 2000 EKITALDIKO AURREKONTU LIKIDAZIOA ETA 2001 EKITALDIAN TXERTATUTAKO KREDITUEN BERRI EMATEA.-

Ondoren, Alkateak 2001eko martxoaren 27ko ebazpen bidez onartutako 2000 ekitaldiko aurrekontu likidazioaren berri ematen du. Likidazio honek 398.956.784,- pta.ko Diruzaintzako Gerakin Likidoa ematen du. Txertaketak egiteko kredituak berriz 291.095.515,- pta. dira eta martxoaren 26ko datuz zenbateko bereko Alkatetzako Ebazpen bidez Kreditu Txertaketa bidezko 1 Zbk.dun Kreditu Aldaketa Espedientea onartu da.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Jose Antonio Dopazo Martin zinegotzia bertaratu da.

...///...

...///...

IV.- 1 HIRIGINTZ AREAKO 3 BURUTZE UNITATEKO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUAREN AURKAKO KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBO HELEGITEA.-

Jose Angel Larrañaga Sasianbarrena Jaunak kontentzioso-administratibo helegitea tartearri du Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Kontentzioso-Administratiboko Salaren aurrean, 1 Hirigintz Areako 3 Burutze Unitateko birpartzelazio proiektuaren bategindako testua onartzen deneko 2000ko uztailaren 21eko ebazpenaren aurka tartearritako birjarpen errekursoaren ezespena dela eta.

Honen aurrean, Alkateak, 2001ko urtarrilaren 26ko ebazpen bidez, zera ebatzi zuen:

- 1.- Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salara eskatutako espedientearen egiaztatutako kopia foliatuta bidaltzea.
- 2.- Espedientean interesatu direnak enplazatzea, 9 egunetako epean errekursoan demandatu bezala bertaratu ahal izateko.
- 3.- Udala prozedimentuan bertaratzea, Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatuak, eta Alberto Arenaza Artabe eta Miguel Olaizola Segurok prokuradore izanik.

Hau honela, Udal Osoko Bilkurara ekartzen da, honek alkatetzako ebazpen bidez hartua izan den erabakia berrestu dezan.

Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EA), EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), alkatetzako ebazpen bidez hartutako erabaki hauetan berretsi egiten da.

V.- ISURKETA KANONA DELA ETA, TARTEJARRITAKO HELEGITE GUZTIAK BERTAN BEHERA UZTEA.-

Gipuzkoako Ur Kontsorzioetik honek eta Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailaren artean izenpetu den hitzarmenaren berri eman zaio Udal honi. hitzarmen honetan esaten denez Gipuzkoako Ur Kontsorzioa izango da 1995etik (urte hau barne) aurrera isurketa kanonak bere gain hartuko dituenak. Hau horrela izanik 1995etik hasita isurketa kanonen aurka tartearri diren helegite guztietatik etsi eta Epaitegietako Prokuradorea den Yolanda Rodriguez Diaz Andereari Asturiaseko Auzitegi Nagusitik aipatutako helegiteak erretiratzeko baimena ematea eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean eta, hala legokion kasuetan, Oviedon "Confederación Hidrográfica del Norte"-ren aurrean jarritako helegite administratiboak erretiratzeko dagozkion tramiteak egiteko Alkatea baimentzea eskatzen zaio udal honi.

Hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- 1995etik hasita isurketa kanonen aurka tartearri diren helegite guztietatik etsi eta Epaitegietako Prokuradorea den Yolanda Rodriguez Diaz Andereari Asturiaseko Auzitegi Nagusitik aipatutako helegiteak erretiratzeko baimena ematea.
- 2.- Eusko Jaurlaritzaren aurrean eta, hala legokion kasuetan, Oviedon "Confederación Hidrográfica del Norte"-ren aurrean jarritako helegite administratiboak erretiratzeko dagozkion tramiteak egiteko Alkatea baimentzea.

...///...



...///...

VI.- OROBIONEKO BIRRERA KITZE LANEN 2. ZERTIFIKAZIOA.-

Orobione etxearen birreraikitze lanen obra zuzendaritza daramaten Juan Jose Garmendia Soria eta Roberto Gartzia Azpiri arkitektoek, lanen bigarren zertifikazioa aurkeztu dute.

Zertifikazio honen zenbatekoa ZAZPI MILIOI BERREHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA EHUN ETA LAUROGEITA HIRU (7.230.183,-) pesetatakoa da (43.454,27 €).

Udal arkitekto teknikoak bere txostenean zertifikazio honi bere adostasuna eman eta esaten du zertifikazio honetan aurreko zertifikazioan gehiegizko neurketekin zertifikatutakoa zuzenduta dagoela.

Hau honela, Osoko Bilkurak, berataratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

VII.- ZUBIERREKA INDUSTRIALDEKO PABILIOIAREN TRUKAKETA.-

Legaia, S.L.L. enpresak hiru pabilioi zituen orain arte Lazkaon, Zubierreka Industrialdean, 46, 45 eta 44 zbkia. daramatzatenak. Pabilioi horietan 100 pertsonatik gorako langile kopuruak lan egiten du. Legaia, S.L.L. enpresak INEMek ematen duen ENPLEGURAKO BERRARIAZKO ZENTRU kalifikazioa du eta ezintasunen bat duten pertsonekin osatutako elkar-tea da.

Pabilioi horietan daramaten jarduerarentzako leku gutxiegi dutela eta beste pabilioi bat erosi dute, Zubierreka Industrialdeko 30 zbkia. daramana, bai hau beste hiruretatik aparte gelditzen da, oraingoetatik 150,- metrotara gutxi gora behera. Pabilioi hau 435 m² takoa da.

Lazkaoko Udala, Zubierreka Industrialdeko 43 zbk.dun pabilioiaren jabea da eta pabilioi hau Legaia, S.L.L.ren 46, 45 eta 44 pabilioien jarraiekora da. Lazkaoko Udalarena den pabilioi honek 379,62 m² ditu.

Legaia, S.L.L.ren beharra ikusita, honen 30 zbk.dun pabilioia eta Udalaren 43 zbk.dun pabilioiaren trukaketa planteatzen da.

Hau honela izanik eta Legaia, S.L.L.k Zubierreka Industrialdeko kokapenean gaur egun duen egoerak, enpresa honek betetzen duen funtzio soziala kontutan hartuta, trukaketa hau egiteari buruz Toki Entitateen Ondasunen Arautegiko 112 artikulua xedatzen duen "trukaketa egitearen beharra" zurrizten du.

Trukatzea planteatzen den bi pabilioien baloraketari buruz Udal Arkitektoak egin duen txostenean, bien arteko baloreen aldea %40koa baino handiagoa ez dela adierazten da. Txosten honetan esaten da Legaia, S.L.L.ren pabilioiak 439,35 m² dauzkala eta eta 32.951.250,- pta.tan (198.041,00 €) baloratuta dagoela eta Udalaren jabetzako pabilioia al-diz 379,62 m²takoa dela eta 23.156.820,- pta.tan (139.175,29 €) baloratuta dagoela.

Bestalde Legaia, S.L.L.k Udalari egin dion trukaketa eskeintzan pabilioia pabilioiaren truke eta baloraketa aldearengatik inolako konpentsaziorik gabe egitea planteatu du eta gai-

...///...

...///...

neratu du trukaketak sor ditzazkeen zerga, nahiz eskrituratze nahiz erregistratze nahiz beste edonolako gastu bere gain joango liratekeela.

Guzti hau kontutan hartuta, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, berataratutako bere partaide guztien aldeko botuz, honako akordio hauek hartzen ditu:

1., Akordio honen aurrekinetan zehazten diren terminoetan Legaia, S.L.L.rekin planteatzen den pabilioi trukaketa onartzea.

2.- Trukaketa hau aurrera eramateko beharrezko diren dokumentuak izenpetzeko Alkatea ahalmentzea.

VIII.- SAN PRUDENTZIO IKASTETXEAREN DESAFEKTAZIOA.-

Gaur egun Euskadi Enparantza, 2an kokatzen den eraikina -San Prudentzio Ikastetxe Publikoa- irakaskuntza publikoko erabilerarako ez dela erabiltzen ikusita, Hazienda, Pertsonal eta Gobernazio Batzordeak Udal Osoko Bilkurari bere desafektazioa erabaki dezala proposatzen dio.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du bera abstenitu egingo dela.

Gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), honako akordio hauek hartzen ditu:

1.- San Prudentzio Ikastetxe Publikoa eraikina desafektatzeko haserakoz onartzea, desafekzio hau onar dezan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatuz eta ondoren espedientea jendaurreko 30 egunetan jartzea.

2.- Jendaurreko denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, haserako onarpena behin betikoa bihurtuko litzateke espreski akordio berri baten beharrik gabe.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Amundarain zinegotziak (EH) aberri egunari buruz zer asmo dagoen galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio esanez Udalbiltzatik edo hobeto esanda honen izenean udalbiltza alternatiboak proposamen bat bidali duela baina bere ustez behintzat Udalbiltzak ez duela oraindik inolako deialdirik egin.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du beraiek (EAJ, EA) koalizio bezala ez dutela erabaki bat hartu oraindik baina erantzun bat emango dietela.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du zer den Udalbiltza eta zer ez den eztabaidetan hasi gabe batera egitea eskatuko lukeela eta akordio batetara iristeko ahalegin bat egin behar bada, uste duela merezi duela ahalegin hori egiteak.

Alkateak esaten du Belen Gonzalez lazkaotarraren epaiketa martxoaren 19an izan zela eta apirilaren 4erako espero dela epaia izatea.

...///...



...///...

Alkateak esaten du hauteskundeak direla eta, mahaietako partaideak zozketa bidez aukeratzeko ez-ohiko osoko bilkura bat egin beharko dela. Hau horrela izanik bilera hau apirilaren 17an, arratsaldeko 7etan, izango dela esaten du.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudarik.

